



# EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 5 zk.

## Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



**Sergio Lopez de la Calle.** ULMA Packaging.

“Ondo ez dakidalako euskaraz hitz egiten, baina gustatzen zait hizkuntza ikaragarri honen parte izatea, ondo ikasi arte.



**Andoni Goitia.** ULMA Architectural

“ Euskaraldian izena ematea erabaki dut, alde batetatik, duela bi urte parte hartu nuelako eta ariketa polita iruditu zitzaidalako. Gainera, uste dut aurtengo egoera berezia dela eta, harremanak murriztearekin bat zenbait jendek erabiltzeko aukera gutxiago ere izango du. Euskaraz hitz egin edo gutxienez ulertzeko gai diren/garenon artean beti euskaraz egin beharko genukeela uste dugunontzat, aitzakia bikaina da bultzada bat eman eta gure buruari azterketa hori eginarazteko. Eta bukatzeko, Euskaraldian izena ematea erabaki dut, jolas formatua izan arren, uste duguna baino garrantzitsuagoa den zerbait egin dezakegulako”.

## Eguneko datua


# %63

ULMA Taldeko Batzar Nagusietako batez besteko erabilera

## Pandoraren kutxa

**Ahobizi, eutsi euskarari:**

1. **Ekin** (lehen hitza euskaraz),
2. **adierazi** (euskarari eutsiko diozula),
3. **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula),
4. **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



# 7. eguna